

MASTERCLASS DANTZANGO!



Eibarko Udalak DantzanGo! koreografoekin batera, dantza MasterClass-a antolatu du

Tramitatzailea: Kultura

Hartzaileak: 2002. urtean edo lehenago jaiotakoentzat.

Ordutegia:

Goizeko 11:00etatik 12:30etara

Ikastaroaren prezioa: Dohainik

Eskaera egiteko tokia:

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Nork emango du: DantzanGo! programako koreografoek

Non eta noiz:

Ipuru Kiroldegian, Pizinan gainetik dagoen dantza gelan. Abenduak 15 larunbata

Ikastarora ekarri behar den materiala:

arropa eta zapatilla erosoak.

Ikasle kopurua: gutxienez 8 eta gehienez 40 ikasle

Ikastaroaren hizkuntza: euskaraz.

Eskaera egiteko epea:

abenduaren 3tik 12 arte (biak barne)

Aurkeztu beharreko agiriak:

“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.eus, eskuragarri).

Nortasun agiri nazionala eskatuko da emandako datuak egiaztatzeko.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), **2018ko abenduaren 14an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehiengo ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehiengo ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **2018ko abenduaren 14an 08:00etan**

Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastaroan izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egingo da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat aterako da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean egongo da **abenduaren 14an eguerdiko 12:00etatik** aurrera.

Informazio gehiago: 943 708 435

MASTERCLASS DantzanGO!

DantzanGO! programako koreografoekin dantza egiteko aukera paregabea